



# **GOBERNU BILERA**

**Prentsa-Txostena  
Erabaki nagusiak**

## **CONSEJO DE GOBIERNO**

**Dossier de Prensa  
Acuerdos destacados**

**Vitoria-Gasteiz, 2024ko urriak 29**

**Vitoria-Gasteiz, 29 de octubre de 2024**

## Eusko Jaurlaritza

### **OGASUN, GOBERNANTZA, SEGURTASUN, OSASUN ETA ONGIZATE SAILEN EGITURA BERRIAK ONARTU DIRA**

Gobernu Kontseiluak gaur onartu ditu Ogasun eta Finantza Sailaren, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailaren, Segurtasun Sailaren, Osasun Sailaren eta Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailaren egitura organikoak eta funtzionalak ezartzen dituzten dekretuak.

#### **Ogasun eta Finantza**

Sail honek bi sailburuordetza ditu: Ogasun Sailburuordetza eta Finantza Politika eta Aurrekontu Sailburuordetza. Kontrol Ekonomikoko Bulegoa ere barne hartzen du.

Era berean, Ogasun Sailburuordetzak hiru zuzendaritza ditu (Zerga Administrazioa, Ondare eta Kontratazioa, eta Erakundeen Baliabideak). Bestalde, Finantza Politika eta Aurrekontu Sailburuordetzak beste hiru zuzendaritza ditu (Finantza Politika eta Gizarte Aurreikuspena, Politika Ekonomikoa eta Europako Kohesioa, eta Aurrekontuak).

Ogasun eta Finantza Sailari atxikitzen zaizkio, halaber, Lehiaren Euskal Agintaritza administrazio-erakunde autonomoa, Finantza Politika eta Aurrekontuetako Sailburuordetzaren bitartez, bere autonomia organikoa eta funtzionala alde batera utzi gabe, eta Finantzen Euskal Institutua zuzenbide pribatuko erakunde publikoa, sailburuaren bitartez.

#### **Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu**

Sailak lau sailburuordetza ditu: Erakunde Harremanak, Araubide Juridikoa, Enplegu Publikoa eta Administrazio Digital eta Zerbitzu Orokorrak. Sailburuordetza horiek, era berean, zuzendaritzetan antolatzen dira, gai espezifiko bakoitzaren arabera.

Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuaren mende daude Zerbitzu Zuzendaritza, Kabinete eta Komunikazio Zuzendaritza eta Autogobernu Zuzendaritza.

Erakunde Harremanetarako Sailburuordetzaren mende daude: Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritza, Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritza eta Gobernu Irekirako eta Gobernu Onerako Zuzendaritza.

Araubide Juridikoaren Sailburuordetzaren mende daude: Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritza eta Auzibideen Zuzendaritza.

Enplegu Publikoko Sailburuordetzaren mende daude: Enplegu Publikoko Zuzendaritza eta Lan Harremanen Zuzendaritza.

Eta, azkenik, Administrazio Digitalaren eta Zerbitzu Orokorren Sailburuordetzaren mende daude: Estrategia Digitalaren Zuzendaritza, Herritarrak Hartzeko eta Administrazio Berrikuntzarako Zuzendaritza eta Baliabide Orokorren Zuzendaritza.

Sailak legegintzaldi honetarako ezarritako helburu nagusietako bat eraldaketa digitalean aurrera egitea da, administrazio modernoagoa eta hurbilagoa lortzeko. Ildo horretan, Sailaren egitura egokitu da, administrazio publikoa digitalizatzeko eta arintzeko beharrari eta erronkari erantzuteko. Beraz, Sailburuordetza Administrazio Digitala eta Zerbitzu Orokorrak izena hartuko du. Eta, aurrerantzean, Herritarrak Hartzeko eta Administrazio Berrikuntzarako Zuzendaritza sailburuordetza honi atxikita egongo da.

### **Segurtasun**

Segurtasun Sailak egitura-dekretu berri bat izango du, eta saileko bi sailburuordetzak berrituko ditu. Alde batetik, Segurtasuneko sailburuordetza egongo da, eta hari dagokio, besteak beste, Ertzaintza kudeatzea, pertsonen segurtasuna, ondasunak eta herritarren segurtasuna, udaltzaingoen koordinazioa eta segurtasun pribatua. Segurtasun Sailburuordetza Ricardo Ituarteren eskuetara pasatuko da. Ituartek hurrengo egunetan erretiroa hartuko duen Rodrigo Gartziaren lekukoa hartuko du.

Egitura-dekretu berriarekin, Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetza Babes Zibileko Sailburuordetza izango da aurrerantzean. Sailburuordetza berriari dagokio babes zibila eta larrialdiak, meteorologia, trafikoa eta bide-segurtasuna zuzentzea eta koordinatzea, baita jokoan, ikuskizunen eta jolas-jardueren araubidea eta hauteskunde-prozesuak zuzentzea eta koordinatzea ere. Joana Egiluz Ibarguenek hartuko du sailburuordetza berri honen ardura.

Segurtasun Sailak Giza Baliabideen eta Kudeaketa Ekonomikoaren zuzendaritza bat ere izango du sailaren ekonomia- eta aurrekontu-administrazioarako. Zuzendaritza honen arduraduna Miriam Anitua Aranzabal izango da.

### **Osasun**

Osasun Sailak, egitura-dekretu berriarekin, bi sailburuordetza ditu, Osasunarena eta Administrazio eta Finantzaketa Sanitariokoa, eta horiek, era berean, hainbat zuzendaritzatan egituratzen dira: Kabinete eta Komunikazio Zuzendaritza, Alberto Martínez sailburuaren mendekoa; Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza, Osasuneko Eraldaketa, Plangintza eta Digitalizazioaren Zuzendaritza, Ikerketa, Berrikuntza eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritza, eta Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritza, Osasun Sailburuordetzaren mendekoak; eta Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorretako Zuzendaritza, Aseguramendu eta Kontratazio Sanitarioko Zuzendaritza eta Farmazia

Zuzendaritza, Administrazio eta Finantzaketa Sanitarioko Sailburuordetzaren mendekoak.

Halaber, aipatutako dekretuak Osasun Sailari atxikitzen dizkio honako hauek: «Osasun Publikoaren Euskal Institutua» organismo autonomoa; «Osakidetza–Euskal osasun zerbitzua» zuzenbide pribatuko ente publikoa; eta «BIOEF – Berrikuntza eta Ikerkuntza Sanitariorako Euskal Fundazioa» sektore publikoko fundazioa.

Osasun Sailaren ustez, proposatzen den antolaketa-konfigurazioa egokia da osasun-sistema publikoaren eraldaketaren oinarriak finkatzeko, izan ere osasun-kudeaketaren paradigma berri bat hartu beharko du bere gain, Alberto Martinez Osasuneko sailburuak Legebiltzarrean egindako agerraldian iragarri zuen bezala.

Halaber, egokia da osasunaren sustapena eta prebentzioa sustatzeko, zahartzeari, kronikotasunari eta mendekotasunari arreta emateko neurriak ezartzeko, osasun-sistemaren jasangarritasuna eta modernizazioa bultzatzeko, osasunaren arloko ikerketa- eta berrikuntza-estrategian aurreikusitako jarduerak hedatzeko eta Euskadiko gobernantza soziosanitarioaren ereduaren garapena bultzatzeko.

### **Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoa**

Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailak bi sailburuordetza ditu: Ongizate Sailburuordetza eta Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailburuordetza. Sailburuordetza horiek, era berean, hainbat zuzendaritzatan egituratzen dira, hainbat erronka eta helbururi aurre egiteko.

Alde batetik, adingabeen oinarritzko eskubide eta askatasunak sustatzea eta babestea, eta haien parte-hartze soziala.

Bestetik, gazteak emantzipatzea eta helduarora igarotzea; familia-proiektu berriak eratzea, jaiotza-tasa eta kontziliazio erantzukidea.

Gainera, bizitza osorako laguntza eta aukeren eredu propioa aktibatuko da, zahartzearen erronkari erantzuteko eta komunitatean bizitza independentea bultzatzeko.

Bestetik, pertsona eta familia etorkinak erakartzea, atxikitzea, hartzea eta integratzea bultzatuko da; eta, zeharka, hirugarren sektore sozialaren eta ekintza komunitarioaren ekarpena sustatuko da, baita kohesio soziala, bizikidetza eta belaunaldien arteko elkartasuna ere.

Sailak aipatutako bi sailburuordetza izango ditu, baita hainbat zuzendaritza ere: Kabinetearena eta Komunikazioarena, Zerbitzuena eta Aniztasun, Bizikidetza eta Belaunaldien arteko Elkartasunarena, Nerea Melgosa sailburuaren mende egongo direnak; Bizitza Osorako Laguntzen Zuzendaritza, Hirugarren Sektore Soziala eta Ekintza Komunitarioa Sustatzeko Zuzendaritza eta Gizarte

Zerbitzuen Goi Ikuskaritzako Organoa, Ongizate Sailburuordetzatik sortuak; eta Haur, Nerabe eta Familien Zuzendaritza, Gazteria eta Emantzipazio Zuzendaritza eta Etorrinei Harrera egiteko eta Gizarteratzeko Zuzendaritza, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailburuordetzatik sortuak.

Sailaren ikuspegia da euskal gizartea, 2040an, gero eta orekatuagoa izatea demografikoki, eta gero eta aniztasun handiagoari egokitu izana, pertsonen eta familien ekitatea eta aukera-berdintasuna bultzatuz, eta gizarte-loturak, parte-hartzea eta pertenezia sena indartuz, baita gizarte-kohesioaren, harreraren eta bizikidetzaren mailak ere.

Testuinguru horretan, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailaren misioa bi eremu hauetan oinarrituko da:

- Erronka demografikoaren kudeaketa proaktiboa eta integrala.
- Beharrezko eraldaketak sustatzea, trantsizio-politiken eta proiektu traktoreen bidez, zaintza- edo laguntza-sistema publikoa eta bizi-mailako politikak trantsizio soziodemografiko eta teknologiko-digitalera egokitzeko.

Hori guztia ikuspegi transbertsal eta integraletik, generokotik eta intersektionaletik egingo da, gizarte-babeseko euskal sistema bere osotasunean kontuan hartuta.

## Kultura eta Hizkuntza Politika

### **EUSKO JAURLARITZAK BALENCIAGA MUSEOARI DIRULAGUNTZA EMATEA ERABAKI DU USTIAPEN AURREKONTUARI AURRE EGITEKO**

Gobernu Kontseiluak gaurko batzarrean Balenciaga Museoari (Berroeta Aldamar merkataritza-sozietatea) zuzendutako 15.000 euroko dirulaguntza onartzea erabaki du. Patronatoko kideak diren instituzio publikoek, hau da, Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Kultura Ministerioa, aurre egin behar diete urtero ustiapen aurrekontuari eta dirulaguntza honen bidez konpromiso hori betetzen da.

Instituzioek egiten duten ekarpen ekonomiko honen bidez, kontabilitatea eramatea finantzatzen da batez ere, eta kontuen nahitaezko urteko auditoretza egiten da. Dirulaguntza hau urtero egiten da

## Ekonomia, Lana eta Enplegua

### **LANBIDEK 2,3 MILIOI PASATXO GEHIAGO BIDERATUKO DITU ENPLEGU ZENTRO BEREZETAN KONTRATATUTAKO DESGAITUEN LANPOSTUAK MANTENTZEKO LAGUNTZETARA**

- **71,7 milioi euroko deialdiaren xedea da ia 11.000 pertsonaren soldata-kostuak finantzatzea**

Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuak 2,3 milioi euro pasatxo gehiago bideratuko ditu Enplegu Zentro Berezetan kontratatutako desgaituen lanpostuak 2025. urtean mantentzeko laguntzetara. Laguntza horien zenbatekoa, guztira, 71.712.750 eurokoa izango da.

Honela, 90 Enplegu Zentro Bereziren dirulaguntza-eskariak bete eta, ondorioz, 10.928 pertsonaren soldata-kostuak finantzatu nahi dira. Diru-laguntza altan emanda eta enpresan lanean ematen duten denborarako emango da.

Lanaldi osorako kontratatutako pertsonen kasuan, Lanbide arteko Gutxieneko Soldataren % 50 lagunduko da diruz eta laneratzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonen kasuan % 55 ordainduko da –% 60 emakumea edo 45 urtetik gorakoa bada–.

Desgaitasuna izanik laneratzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonatzat hartzen dira garun-paralisia, gaixotasun mentalen bat, desgaitasun intelektuala edo autismoaren espektroko nahasmendua duten pertsonak, baldin eta % 33ko edo gehiagoko desgaitasun-maila aitortua badute, eta desgaitasun fisikoa edo sensoriala duten pertsonak, baldin eta % 33ko edo gehiagoko desgaitasun-maila aitortua badute.

#### **Dirulaguntzak eskatzea**

Dirulaguntza urtez urte eskatuko da, hau da, soldata-kostuak abenduaren 1etik 31ra arte estaltzeko. 2024. urtean zehar 85 Enplegu Zentro Berezik jaso dute laguntza hau eta Lanbidek, batez beste, 10.637 pertsonaren kostuak finantzatu ditu (3.790 emakume tartean).

## Ogasun eta Finantzak

### **EUSKADIK 2025ean 15.728 M€ IZANGO DITU ONGIZATEAN HAZTEN JARRAITZEKO**

Gobernu Kontseiluak gaur onartu du 2025eko Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren Proiektua, 15.728 M€-koa. Aurrekontu orokorra 703 M€-tan handitu da, hau da, iaz baino % 4,7 handiagoa da. Legealdi honen lehen aurrekontua da, eta legealdiari heltzeko azaldutako espiritu ausarta laburbildu eta islatzen du. Eusko Jaurlaritzak egungo eta etorkizuneko Euskadi hiru zutaberen gainean eraikitzeko aukera aprobetxatuko du:

1. Zerbitzu publikoak sendotzea
2. Etorkizunera begira prestatzeko eraldaketetan inbertitzea
3. Gure komunitate zentzua indartzea

Proiektu honen giltzarrietako bat da Eusko Jaurlaritzak, lehen aldiz, bere baliabideetako 1.500 M€ baino gehiago jarriko dituela inbertsio publikorako. Zehazki, 1.531,08 M€, hau da, aurreko urteko aurrekontua baino % 8,8 gehiago (124 M€ gehigarri). Horri gehitu behar zaizkio Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoen (SEM) bidez egindako inbertsioak eta Hegoaldeko Trenbide Saihesbidean (HTS) eta Euskal Y-an egindako inbertsioak. Horiekin zenbatekoa 1.837 M€-ra iristen da. Eusko Jaurlaritzak bi arlotan jartzen du arreta: batetik, I+G+Ban, 680 M€-rekin, hau da, 2024an baino 39 M€ gehiago —hartara, urtez urte % 6 handitzeko konpromisoa betetzen da—; eta, bestetik, ongizatean eta bizi-kalitatean, aurrekontuaren % 76,6 politika horietara bideratzen baita, 11.434,2 M€-rekin (500 M€ inguru handitu da).

“Proiektu hau 2025ean % 2,1eko hazkunde ekonomikoa izango den testuinguruan kokatzen da. Urte horretan gutxi gorabehera 16.000 enplegu sortzea, langabezia-tasa % 6,8koa izatea eta barne-produktu gordin nominala % 4,3 haztea aurreikusten da” azaldu du d’Anjou sailburuak.

Urriaren 31n erregistratuko da aurrekontu-proiektua Eusko Legebiltzarrean, eta sailburuek azaroaren 4tik 7ra bitartean egingo dituzte agerraldiak Legebiltzarrean. Sailburuen agerraldien ondoren, bilera sorta irekiko da talde politikoekin, Jaurlaritza sostengatzen duten alderdietatik haratago aurrekontuak zer babes izan dezakeen aztertzeko, aurrekontua abenduaren 20an behin betiko onartze aldera.

“Espero dut guztiok gai izatea negoziazio honi ikuspegi zabaletik heltzeko, taktizismo politikoetatik ihesi eta garrantzitsuena den horretan oinarrituz: herri honen ongizatea eta garapen ekonomikoa sustatzen jarraitzea, tokikotik lehiatu behar baita mundu global batean” aditzera eman du sailburuak.



## 1. Esparru ekonomiko-finantzarioa: diru-sarrerak

	2025	2024	ALDEA	%
	2024	2025	Aldea	%
Foru Aldundien ekarpena	12.686,7	13.200,0	513,3	% 4,0
Bestelako sarrerak (BGD, euskal Y, Hego saihesbidea, kargak...)	893,3	877,3	-16,0	% -1,8
Soberakina	608,3	365,9	-242,4	% 39,8%
Zorpetze gordina	837,1	1.285,0	447,9	% 53,5
<b>Sarrerak Guztira</b>	<b>15.025,4</b>	<b>15.728,2</b>	<b>702,8</b>	<b>4,7%</b>

Foru Aldundien ekarpenen zenbatekoak 2025ean jasotako transferentzia berrien balorazioa barne hartzen du (immigrazioa, unibertsitate-tituluen homologazioa eta "aldirikoak"), eta 13.200 M€-koa da. Gainera, karga energetikoen (67 M€) eta kreditu-erakundeen (52 M€) diru-sarrerak mantentzen dira. Euskal Y-ari eta Hegoaldeko Trenbide Saihesbideari dagozkien zenbatekoei eta Suspertze eta Eraldatze Mekanismoaren zenbatekoei dagokienez, bi kontzeptuetan zenbatekoek behera egin dute 2024koen aldean. Zehazki, 2025ean ez da aurreikusten Suspertze eta Eraldatze Mekanismoen funtsen sarrera berririk, jarduketa guztiak aurreko urteetako diru-sarreraren kontura egingo baitira (soberakinak). Aurreikusitako zorpetzea 1.284,9 M€-koa da, eta zorraren amortizazioa 795 M€-koa.

Aurrekontu-egonkortasunaren bideari dagokionez, eta Estatuan aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-jasangarritasunaren helburuak finkatzeko beharrezkoak diren prozedura instituzionalak eta parlamentarioak oraindik osatu ez direnez gero, ezin izan da oraindik Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoa bildu, euskal erakundeen defizit- eta zorpetze-helburuak aldebiko moduan finkatze aldera. Aurrekontu hori egiteko, eta zuhurtasun-printzipioa aplikatuta, 2024ko helburuetatik abiatu da, non Euskadiko barne-produktu gordinaren % 0,3ko defizita aurreikusten baita. Eusko Jaurlaritzak Ogasun Ministerioarekin lanean jarraitzen du zehaztutako helburuak adostu daitezen.

## 2. Sailen araberako banaketa:

Aipatutako gaiak zenbait Sailetan dute eragina, eta, gai horietan definitutako ildo nagusiez gain, eta 2024ko datuekin alderatze aldera, Eusko Jaurlaritzaren legealdi berrirako egiturarekiko homogeneousatuta aurkezten dira.

SAILAK	2025	2024	Aldea	Aldakuntza %
Lehendakaritza	95,5	92,2	3,4	% 3,7

Kultura eta Hizkuntza Politika	392,1	369,4	22,7	% 6,1
Ekonomia, Lana eta Enplegua	1.224,9	1.194,6	30,3	% 2,5
Ogasuna eta Finantzak	122,5	122,0	0,6	% 0,5
Gobernantza, Administrazio Digitala eta Autogobernua	176,6	166,6	13,1	% 7,9
Industria, Trantsizio Energetikoa eta Jasangarritasuna	631,2	599,9	31,4	% 5,2
Segurtasuna	796,3	790,2	6,2	% 0,8
Hezkuntza	3.247,5	3.125,9	121,6	% 3,9
Etxebizitza eta Hiri Agenda	445,9	424,4	21,6	% 5,1
Osasuna	5.115,9	4.900,2	215,6	% 4,4
Ongizatea, Gazteria eta Erronka Demografikoa	357,9	344,2	13,8	% 4,0
Mugikortasun Jasangarria	567,2	557,0	10,3	% 1,8
Zientzia, Unibertsitateak eta Berrikuntza	612,7	563,0	49,7	% 8,8
Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa	57,8	53,4	4,4	% 8,3
Elikadura, Landa Garapena, Nekazaritza eta Arrantza	273,9	273,8	0,1	% 0,0
Justizia eta Giza Eskubideak	359,6	340,4	19,2	% 5,7

### **Osasuna: 5.115,9 M€**

Aurrekontu-igoerarik handiena Sail honetan izan da, 2025ean 215 M€ gehigarri baino gehiago izango baititu. Igoera horren % 80 (171,8M€) Osakidetzari dagokio. Datorren urtean 4.063M€ (+% 4,0) izango ditu, eta horietatik 161,7 M€ (+21,7 M€) osasun-sistema modernizatzeko inbertsio berriak finantzatzeko jarriko dira. Sailaren esparruan, farmazia-prestazioetara bideratutako zenbatekoa nabarmentzen da, 590 M€ inguruko zenbatekoarekin. Txertoen gastua 28 M€-tik gorakoa izango da.

### **Hezkuntza: 3.247,5 M€**

Aurrekontuaren hazkunde orokorra 117,3 M€-koa da. Euskal Autonomia Erkidegoko ikasleen ekitate eta kohesio sozialaren eta aukera-berdintasunaren aldeko apustu garbia egin da. Unibertsitateaz kanpoko beken politikak eta jantokiko eta garraioko zerbitzu osagarriek 137 M€ izango dituzte, % 6,5eko igoerarekin. HEZKUNTZA ERAIKI 2030 Planaren bidez, ikaskuntzarako espazio malgu berrietara bideratuko den 168 M€-ko inbertsio produktiboa finkatu da. Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-sistemako ikastetxeetako langileekiko ordainsari-politikaren konpromisoak ere jasotzen ditu aurrekontuak, bai sare publikoko langileei dagozkienak, bai itunpeko sareko irakasleei dagozkienak. Langileen kapituluak, Sailaren partidarik garrantzitsuenak, 47,7 M€-ko igoera

izan du, eta 1.793,2 M€-koa da. Gainera, HAURRESKOLAK Partzuergoak 77,2 M€ izango ditu (+11,2 M€), plazen eskaintza publikoa eta doakotasuna indartuz.

**Ekonomia, Lana eta Enplegua: 1.224,9 M€**

Lanbideren aurrekontua 1.135,5 M€-koa da, barnean direla diru-sarrerak bermatzeko errentarako (399,2 M€) eta bizitzeko gutxieneko errentarako (200,4 M€) 600 M€ inguru, hau da, 2024an baino % 6,7 gehiago.

**Segurtasuna: 796,3 M€**

Sail honetan, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiarentzako 3 milioiko iguera nabarmentzen da. Hazkunde horren bidez erantzun nahi zaie, besteak beste, jarduera handitzearen ondoriozko premiei, bereziki agente-ikastaroetan eta Ertzaintzaren funtzioa hobetzeko behar diren espezialitateen garapenean.

**Industria, Trantsizio Energetikoa eta Jasangarritasuna: 631,2 M€**

Nabarmentzekoa da URari inbertsioetarako egindako ekarpena, 38 M€ (+ % 13,7); IHOBek 11,3 M€ jasoko ditu, eta SPRik kudeatutako nazioartekotze-programak 34,5 M€, 2024an baino % 9 gehiago.

**Zientzia, Unibertsitateak eta Berrikuntza: 612,7 M€**

UPV/EHUri 401,1 M€-ko ekarpena egingo zaio (guztizkoaren bi heren eta 2024an baino % 4,1 gehiago). Beken partidak 31,45 M€-koak dira. 98,34 M€ jarriko dira politika zientifikorako. Berrikuntzarako eskumena geure gain hartzeak 38,20 M€-raino igotzen ditu arlo horretan kudeatutako funtsak, 2024an baino bi aldiz gehiago.

**Mugikortasun jasangarria: 567,2 M€**

Sailak bere politika arruntak egiteko duen aurrekontua 28,3 M€ handituko da (% 8,7). Trenbide Sare Berria eta Bilboko Hegoaldeko Trenbide Saihesbidea kudeatzeko aginduekin lotutako ezohiko partidak eta aldiriko trenbideen arloko transferentzia berria kontuan hartuta, Sailaren iguera nominala 10,3 M€-koa da.

**Etxebizitza eta Hiri Agenda: 445,9 M€**

Sail honek 21,5 M€ gehiago izango ditu. Jaurlaritzaren konpromisoetako bat betetze aldera, etxebizitza-programak % 35,9 egin du gora, eta 2024ko 210,8 M€-tik 2025eko 286,4 M€-ra pasa da. Programa horretan partida hauek, besteak beste, sartzen dira (M€):

	2025	2024	ALDEA
Etxebizitzaren prestazio ekonomikoa	30,0	5,2	24,8
Bizigune	41,0	35,8	5,2
Gaztelagun	25,0	17,6	7,4
Birgaitzeko dirulaguntzak	41,2	24,1	17,1

**Kultura eta Hizkuntza Politika: 392 M€**

Zenbateko hori 2024koa baino % 6,1 handiagoa da. Igoerak euskararen ezagutza areagotzeko eta ingurune guztietan euskararen erabilera sustatzeko helburuari erantzuten dio, baita artistei eta sortzaileei laguntzeko helburuari ere,

talentua gara dadin eta nazioartean presentzia areagotzeko tresnak izan ditzaten. Horrela, Hizkuntza Politikako eta Kultura Sustatzeko programak % 12 eta % 7 igoko dira, hurrenez hurren. Hemen sartzen dira, besteak beste, HABEri egindako 59 M€-ko ekarpena (+7,6 M€) eta artistei eta sortzaileei zuzenean egingo zaien 35,3 M€-ko ekarpena (+% 6,3), kultura-sektorea indartu dadin.

### **Justizia eta Giza Eskubideak: 359,6 M€**

19 M€-tik gorako igoera izango du, batez ere, espetxeetarako plantilla handitzearen eta transferitutako langileen ordainsarien homologazioaren ondorioz.

### **Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoa: 357,9 M€**

Nabarmentzekoak dira 4 urtera arteko seme-alabak dituzten familientzako laguntzak, 122 M€-tik gorakoak. *Emantzipa* gazteen emantzipazioa sustatzeko programak 53 M€ izango ditu berriz ere; Gizarte Larrialdietarako Laguntzek 41,5 M€; familia-laguntzaren sarerik ez duten gazteak gizarteratzeko eta helduarora igarotzeko Trapezistak programak 5 M€; genero-indarkeriaren biktima diren umezurtzentzako laguntzek 450.000 M€; eta gizarte-bonu termikoak 12,4 M€. Bestalde, oinarrizko laguntza materialaren programa 3,9 M€-raino handitu da, eta Beti-On zerbitzua 15 M€-raino. Horrez gain, sexu-indarkeriaren biktimentzako beste laguntza-programa bat sortu da, 1,8 M€-rekin.

### **Elikadura, Landa Garapena, Nekazaritza eta Arrantza: 273,9 M€**

Zenbateko horren barruan sartzen dira Mutrikuko portura itsasoz sartzeko inbertsioa (10,7 M€) eta Nekazaritza Bermerako Europako Nekazaritza Funtsak eta Europako Landa Garapenerako laguntzak (88 M€).

### **Gobernantza, Administrazio Digitala eta Autogobernua: 176,6 M€**

Sail horrek % 7,9ko igoera izan du 2024arekin alderatuta. Aurrekontu-igoera, funtsean, Euskal Administrazioaren Datu Zentroaren energia-efizientzia hobetzearen ondoriozkoa eta zibersegurtasunaren arloko soluzio teknologiko aurreratuak erostearen ondoriozkoa da (10,5 M€).

### **Ogasuna eta Finantzak: 122,5 M€**

Ekarpenik deigarriena Finantzen Euskal Institutuari egindako 57 M€-ko ekarpena da, Sailak Eusko Jaurlaritzaren finantza-politika sustatzeko ezarritakoaren ildotik. Gainera, erakunde horrek gazteek etxebizitza erosteko abalen programa jarriko du abian.

### **Lehendakaritza: 95,5 M€**

Emakundek 7,9 M€ izango ditu, e-Lankidetzak 55,7 M€ eta Kanpo Harremanetarako programak 13,3 M€.

### **Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa: 57,8 M€**

Sailaren aurrekontua % 8,3 handitu da, batez ere Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoen funtsak jasotzeagatik. Kontsumobidek ia 7 M€ izango ditu eta Basquetourrek 10,3 M€.

## Ongizatea, Gazteria eta Erronka Demografikoa

### **JAURLARITZAK TRAPEZISTAK PROGRAMAREN HAZKUNDEA BULTZATU ETA BALIABIDEAK EMAN DIZKIE PROGRAMA KUDEATZEN DUTEN GIZARTE-ERAKUNDEEI URTEAREN BIGARREN ERDIARI EKITEKO**

Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburu Nerea Melgosak proposatuta, gaurko gobernu kontseiluak Agintzari kooperatibari dirulaguntza zuzena ematea onartu du, Trapezistak programaren hedapena finantzatzeko. Trapezistak programak gizarteratzeko eta helduarora igartzeko ibilbidean laguntzen die familiari laguntzeko sarerik ez duten gazteei.

Trapezistak lankidetzak publiko/sozialetik eraikitzen da. Pandemia betean sortu zen programa da, eta sendotzea eta haztea lortu du. Eusko Jaurlaritzako Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailaren bultzadarekin, hirugarren sektore sozialeko 25 erakunde biltzen dituen eta Agintzari buru duen sareak garatzen du programa. Erakunde horiek guztiek esperientzia handia dute gizarte-laguntzan, hiru lurralde historikoetan. Sare horri esker, Trapezista presente dago Laudion, Amurrian, Gasteizen, Hernanin, Tolosan, Donostian, Barakaldon, Getxon, Etxebarrin, Arrigorriagan eta Bilbon.

2024rako, programak 393 plaza izatea aurreikusita zegoen. Hala ere, 2024ko lehen sei hilabeteetan, Trapezistak programak dagoeneko 486 pertsonari lagundu die (451 gizon eta 35 emakume). 2024ko ekainaren 30ean, programak itxaronzerrenda bat zuen, eta 139 pertsonak eman zuten izena. Programan parte hartu duten pertsonen kopurua handitzearen ondorioz, 2024rako hasieran gordetako kreditua urteko lehen sei hilabeteetan agortu da.

Horregatik, Jaurlaritzak interes orokorreko josten du Agintzari enpresari zuzeneko dirulaguntza ematea, 2024ko bigarren sei hilabeteetan Trapezistak programa gauzatzeko.

Trapezistak programaren helburua da laguntza-eredu bat diseinatzea eta gidatzea, gazteria- eta migrazio-politika normalizatuen barruan, ekintza positiboko programa batean oinarrituta. Programa horrek familia-laguntza sarerik ez duten gazteei laguntza ematen die gizarteratzeko eta helduarora igartzeko ibilbidean, hiru jardun-irizpideren arabera: pertsonalizazioa, integritasuna eta sektoreen arteko lankidetzak.

Trapezistak programa Migraziorako Euskal Itun Sozialaren barruan dago, eta Euskal Harrera Eredua eratzten duten ekimenen sare zabal baten parte da. Eredu horretan, erakundeek eta parte hartzen duten udalen arteko koordinazioa funtsezkoa da. Euskal erakundeek bizikidetzaren, inklusio osoaren eta kultur-aniztasunaren alde egiten dute, migratzailea iritsi zenetik euskal gizartean sartzeko prozesuak errazteko.

## Lehen seihilekoa

2024ko lehen seihilekoan, guztira, laguntza-sarerik gabeko 486 gazteri lagundu diete programa osatzen duten erakundeek. Denbora horretan 58 pertsonak (% 12) amaitu dute egonaldia, eta programaren emantzipazio-helburuak lortu dituzte. Eta soilik % 6,3, 31 pertsona irten dira programatik emantzipazio-helburuak lortu gabe. Hamarretik zortzik (% 81,7) Trapezistak programak eskaintzen duen laguntza pertsonalizatuaren prozesuan jarraitzen dute: 397 pertsona.

Lehen seihileko honetan, 'trapezista' profil errepikatuena hauxe da: gizona (% 93), 23,2 urteko batez besteko adinarekin, familiarik gabe migratua, batez ere Marokotik (% 87), Euskadin 18 hilabete baino gehiago sustraitua, hiri-ingurunean bizi dena, erroldatuta dagoena eta osasun-txartela duena, eta gizarte-laguntzako bere sarea eraikitzen ari dena.

## Elikadura, Landa Garapena, Nekazaritza eta Arrantza

**EUSKO JAURLARITZAK GUZTIRA 1.700.000 EUROKO EZOHICO LAGUNTZAK ONARTU DITU ERRIOXA JDKKO ARABAKO MAHASTIZAINENTZAT, 2025EKO KANPAINAN BEREN EKOIZPEN-AHALMENA BERRESKURATZEN LAGUNTZEKO**

- **2024ko kanpainen Errioxa JDKak ezarritako gehienekoaren (5.850 kg/ha) % 50etik beherako ekoizpen-errendimendua izan dutenei zuzendua**

Gobernu Kontseiluak oniritzia eman dio **Amaia Barredo** Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren aginduari, 2024. urterako Errioxa JDKren babespeko Arabako mahastizaintzat **guztira gehienez 1.700.000 euroko ezohiko laguntzak** deitzeko denari. Laguntza horiek **2025eko kanpainen euren ekoizpen-ahalmena berreskuratzen laguntzeko** dira.

Laguntza horien **onuradunak** izan daitezke Arabako mahastien titularrak, Nekazaritza Ustiategien Erregistroan (NUE) izenda emanda dagoen nekazaritzako ustiategi baten titularrak direnak eta Arabako Mahastien Erregistroan inskribatuta dauden eta Errioxa JDKren babespean dauden mahastiak dituztenak.

Laguntza jaso ahal izateko, 2024ko kanpainen beren ustiategiko lursailetan Errioxa JDKak kanpaina horretan ezarritako gehieneko errendimenduaren (5.850 kg/ha) **% 50etik beherako ekoizpen-errendimendua** izatea eskatuko da, hau da, titularra onuradun izateko ustiategiaren gehieneko errendimendu onargarria 2.925 kg/ha izatea.

Laguntzak esleitzeko, onargarritasun-baldintzak betetzen dituzten **eskabideak** lehentasun-ordena baten arabera ordenatuko dira, ekoizpen-ahalmen estandarra berreskuratze aurreikusitako produkzio-kostuen arabera: 2024ko kanpainen produkzio-errendimendua galdu duten lurzatiak. % 80. Eta 2024ko kanpainen produkzio-errendimendua galdu duten lurzatiak. % 50 eta < % 80.

## Justizia eta Giza Eskubideak

### **HABEREKIKO HITZARMENA ONARTU DA EUSKAL ESPETXEETAN ASKATASUNEZ GABETUTAKO PERTSONEI EUSKARAZKO ESKOLAK EMATEKO**

Gobernu Kontseiluak gaur onartu du 2025era luzatzea HABE-Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundearekin akordioa, euskal espetxeetan askatasunez gabetuta dauden pertsonei euskara irakasteko. 100.000 euroko aurrekontua du.

Justizia eta Giza Eskubideen sailburu María Jesús San Josék proposatuta, Gobernu Kontseiluak oniritzia eman dio HABErekiko kudeaketa-akordio honen luzapenari, eta Euskal Autonomia Erkidegoko espetxeetan askatasunez gabetutako pertsonei ematen zaizkien euskara-ikastaroak, modalitate presentzian zein autoikaskuntzakoan, antolatu, kontratatu eta jarraitzeko aukera eman du.

Ildo horretan, San Josék irailean aurreratu zuen, legegintzaldiko jarduera-ildoak aurkezteko Legebiltzarrean egindako agerraldian, espetxeetako graduen progresioari buruzko erabaki guztiak dagoeneko bi hizkuntza ofizialetan komunikatzen zaizkiela preso guztiei. Sailburuak konpromiso hori hartu zuen, alde aurretik terrorismo-delituengatik barneratutako pertsonekin bakarrik egiten zelako.



## Justizia eta Giza Eskubideak

### **JAURLARITZAK 10,5 MILIOI EURO BIDERATUKO DITU GAZTEEI ETA ADINGABEEI HARRERA- ETA GIZARTERATZE-ZENTROETAN LAGUNTZEKO**

Gobernu Kontseiluak gaur onartu du Justizia eta Giza Eskubideen Sailaren eta Gaztaroan Ekin, Berriztu eta Gaztedi elkarten arteko hainbat lankidetzahitzarmen luzatzea, harrera- edo gizarteratze-neurriak bete behar dituzten gazteei eta adingabeei laguntzeko, baita gizartearen aldeko prestazioak egiteko ere.

Justizia eta Giza Eskubideen sailburu María Jesús San Josék proposatuta, lau hitzarmen luzatzea erabaki da. Hitzarmen horiek 2026ko abenduaren 31ra arte luzatuko dira, eta horiekin gazte-justizian jarriko da arreta, eta, zehazki, erregimen irekian neurri judizialak edo, kasu batzuetan, askatasunaz gabetzeko neurriak bete behar dituzten adingabeen egoitza-arretan eta hezkuntzaren arloko esku-hartze integralean.

Gaztaroan Ekin elkartearekin sinatutako hitzarmenaren xedea da Arabako Andoiu-Gorbeia ikastetxean 16 neska adingabe eta gazteri egoitza-harrerako eta gizarteratzeko neurriak betearaztea, baldin eta kautelazko neurri irmo bat bete behar badute iraupen laburreko erregimen ireki, erdi ireki edo itxietan, baita terapeutikoetan edo hezkuntza-taldeetako edo asteburuko egonaldietako bizikidetzaneurrietan ere. Horretarako 3,9 milioi bideratuko dira 2025 eta 2026 bitartean.

Era berean, bi hitzarmen luzatu dira Berriztu Hezkuntza Elkartearekin. Lehenengoa Urgozo ikastetxean (Bizkaia) iraupen laburreko edozein erregimenetan kautelazko neurri irmo bat ere bete behar duten 10 adingabe eta gazteri egoitza-harrera egitea eta gizarteratzea da. 2,5 milioi euroko aurrekontua du. Bestalde, bigarren hitzarmenarekin, Berriztuk Arratzua-Ubarrundiako (Araba) Uribarri ikastetxean garatuko du bere jarduera, Bizkaiko ikastetxearen antzeko neurriak dituzten 16 adingabe eta gazterekin, baita eguneko zentrorra edo zaintzapeko askatasunera joateko Adingabeen Epaitegiek ezarritako neurriak betetzeko beste zortzi plazarekin ere. Onartutako zuzkidura 4,1 milioi eurokoa da.

Azkenik, luzatu egin da Gaztedi esku-hartze sozialeko elkartearekin sinatutako hitzarmena, adingabeen epaitegi batek ezarritako neurri hori bete behar duten adingabeei eta gazteei zuzendutako Gizartearentzako Prestazioen Programa garatzeko eta bitartekaritza-prozedura batean adostutako zeharkako erreparazioa egiteko. Horretarako, gehienez 15.000 euro bideratuko dira.

## Justizia eta Giza Eskubideak

### **EUSKO JAURLARITZAK URDUÑAKO UDALARI DIRULAGUNTZA BAT EMATEA ONARTU DU, HILERRIKO NITXO BATZUK ERAISTEKO ETA HOBITIK ATERATZEKO LANEKIN JARRAITU AHAL IZATEKO**

- Dirulaguntzaren zenbatekoa 48.149,85 eurokoa da
- Eraiste-lanen ondoren, Gogora Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuak abian jarriko du lurpetik ateratzeko hirugarren fasea, abendurako aurreikusita dagoena
- Aranzadi Zientzia Elkarteak, lurpetik ateratzeko ardura duenak, 30 pertsonaren gorpuzkiak berreskuratzeko daudela uste du

Gaurko Gobernu Kontseiluaren bileran Urduñako Udalari 48.149,85 euroko dirulaguntza zuzena ematea onartu da. Ekarpen ekonomiko honen helburua da hilerriko nitxo batzuk, jada erabiltzen ez direnak, eraisteko lanak finantzatzea. Nitxo horiek kontzentrazio-esparruko eta Urduñako espetxeko biktima izan ziren presoen gorpuzkien lurperatzeen gainean daude eraikita daude eta.

Nitxoak kendu ondoren, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuak, desobiratze lanen hirugarren kanpaina jarriko du abian, datorren abendurako aurreikusten dena. Aranzadi Zientzia Elkarteak arduratuko da desobiratze lanetaz eta beraien iritzirako, 30 pertsonaren gorpuzkiak daude oraindik berreskuratzeko, frankismoaren errepresioaren biktima izan ziren 30 presorenak.

Aurreko bi kanpainetan, 2014an eta 2022an, 71 pertsonaren gorpuzkiak berreskuratu dira, eta horietako 11 identifikatu eta haien familiei eman ahal izan zaizkie.

Jarduera hori, Urduñako Udalarekin lankidetzan, Gogora Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren *Gerra Zibilean Desagertutako Pertsonak Bilatzeko Programaren* baitan kokatua dago. Programa hau aurrera eramateko, Aranzadi Zientzia Elkarteak desobiratze eta antropologia forentseko lanak egiten ditu eta EHUko Biomics laborategi genetikoak

## Gobierno Vasco

### **APROBADAS LAS NUEVAS ESTRUCTURAS DE LOS DEPARTAMENTOS DE HACIENDA, GOBERNANZA, SEGURIDAD, SALUD Y BIENESTAR**

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy los decretos de por los que se establecen las estructuras orgánicas y funcionales de los departamentos de Hacienda y Finanzas; Gobernanza, Administración Digital y Autogobierno; Seguridad; Salud; y Bienestar, Juventud y Reto Demográfico.

#### **Hacienda y Finanzas**

Este Departamento se estructura en dos Viceconsejerías, como son la de Hacienda y la de Política Financiera y Presupuestos. Asimismo, se incluye la Oficina de Control Económico.

A su vez, la Viceconsejería de Hacienda cuenta con tres direcciones (Administración Tributaria, Patrimonio y Contratación, y Recursos Institucionales). Por su parte, la Viceconsejería de Política Financiera y Presupuestos contempla otras tres direcciones (Política Financiera y Previsión Social, Política Económica y Cohesión Europea, y Presupuestos).

Asimismo, también están adscritos al Departamento de Hacienda y Finanzas el organismo autónomo administrativo Autoridad Vasca de la Competencia, a través de la Viceconsejería de Política Financiera y Presupuestos, sin perjuicio de su autonomía orgánica y funcional, y el ente público de derecho privado Instituto Vasco de Finanzas, a través del Consejero.

#### **Gobernanza, Administración Digital y Autogobierno**

El Departamento se estructura en cuatro Viceconsejerías: de Relaciones Institucionales, de Régimen Jurídico, de Empleo Público y de Administración Digital y Servicios Generales; las cuales, a su vez, se organizan en Direcciones en función de cada una de las materias específicas.

Dependen de la Consejera de Gobernanza, Administración Digital y Autogobierno la Dirección de Servicios, la Dirección de Gabinete y Comunicación y la Dirección de Autogobierno.

Dependen de la Viceconsejería de Relaciones Institucionales, la Dirección de la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento, la Dirección de Relaciones con las Administraciones Locales y Registros Administrativos y la Dirección de Gobierno Abierto y Buen Gobierno.

Dependen de la Viceconsejería de Régimen Jurídico la Dirección de Desarrollo Legislativo y Control Normativo y la Dirección de lo Contencioso.

Dependen de la Viceconsejería de Empleo Público la Dirección de Empleo Público y la Dirección de Relaciones Laborales.

Y por último, dependen de la Viceconsejería de Administración Digital y Servicios Generales la Dirección de Estrategia Digital, la Dirección de Atención a la Ciudadanía e Innovación Administrativa y la Dirección de Recursos Generales.

